



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduak 14

Vitoria-Gasteiz, 14 de diciembre de 2021

Lehendakaritza

EUSKO JAURLARITZAK *EUSKADI BASQUE COUNTRY 2025* ESTRATEGIA BERRIA ONARTU DU ERRONKA BERRIEI AURRE EGITEKO

- **Gobernu Kontseiluak ere argi berdea eman dio legegintzaldi honetarako Kanpo Ekintzako Planari**

Eusko Jaurlaritzak, gaurko bileran, *Euskadi Basque Country 2025* Nazioartekotzeko Esparru Estrategia berria onartu du, bere nazioartekotze-jarduera indartzeko asmoz, Covid-19aren agerpenak eragindako eredu sozioekonomikoa berreskuratu eta eraldatzeko jokaleku batean. Era berean, eta estrategia horren esparruan, Gobernu Kontseiluak argi berdea eman dio legegintzaldi honetarako Kanpo Ekintzako Planari.

Euskadi Basque Country zeharkako estrategia bat da, eta hura egiteko prozesuan parte hartu dute Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiak, EUDELeK eta hiru euskal hiriburuetakoko udalek, bai eta kanpo-ekintzaren gobernantza-organoak osatzen dituzten nazioartean jarduera garrantzitsua duten erakunde publiko eta pribatu ugari ere. Hori guztia nazioartekotzeko ibilbide-orri komun bat sortzeko helburuarekin, nazioarteko aldaketa geopolitikoetara egokitua, trantsizio digitala eta klimatikoa erraztuko dituena, eta estatuz azpiko gobernuen garrantziaren hazkundera bezalako joerak aprobetxatuko dituena.

Estrategia berri horretara 609.628.068 euro bideratuko dira guztira, eta nazioartekotzeko 3.210 jarduera garatzea da jardueraren helburua.

Lehentasunezko herrialde eta eskualde multzo bat identifikatzen du, eta horietan zentratuko da Eusko Jaurlaritzaren kanpo-agendaren zati handi bat datozen lau urteetan. Horrela, harreman estua duten herrialde eta eskualde batzuekin harremanak indartuko dira, jarduera-eremu berrietara dibertsifikatzea bultzatuko da eta lehentasunezko geografietan harremanak eta aliantzak garatuko dira.

2025arekin, hauek dira lehentasunezko herrialdeak: Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Italia, Suedia, Danimarka, Finlandia, AEB, Mexiko, Txile, Kolonia, Argentina, Kanada, Txina, Hego Korea, India, Japonia, Hegoafrika, Senegal. Eskualde mailan, hauek dira lehentasuna duten eskualdeak: Akitania Berria, Euskal Herriko Aglomerazio Mankomunitatea, Flandes, Bavaria, Gales, Korsika, Quebec, Queretaro, Cundinamarca eta Jiangsu.

Ardatzak eta helburuak

Euskadi Basque Country Estrategiak eta Kanpo Ekintzako Planak lau ardatz nagusi partekatzen dituzte, Eusko Jaurlaritzaren nazioarteko jarduera gidatuko dutenak, eta horien gainean hedatzen dira helburu eta jarduera guztiak. Hauek dira ardatzak:

1.- Euskadiren kanpo-posizionamendua hobetzea:

- Herrialde marka indartzea: bereizia, erakargarria eta inklusiboa
- Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartu eta hedatzea, lehentasunezko Europako herrialdeetan 4 ordezkari izateko, Pariseko Ordezkaritzarekin hasita, eta Basque Trade & Investment agentzien hedapenarekin (laster, Japonian eta Hego Korean).
- Eusko Jaurlaritzaren kanpo-sarea indartu eta hedatzea, lehentasunezko Europako herrialdeetan 4 ordezkari izateko, Pariseko Ordezkaritzarekin hasita, eta Basque Trade & Investment agentzien hedapenarekin (laster, Japonian eta Hego Korean).

2.- Ehun sozioekonomikoaren nazioartekotzea bultzatzea:

- Erakundeen arteko harremanak sendotzea, eta nazioarteko bazkideekin eta aliantzekin egindako lanean sakontzea. 2025erako euskal eragileek kanpora bidalitako 350 misio eta ordezkari izateko antolatzea jarri da helburu gisa.
- Sare sozioekonomikoak bere proiektuak nazioartean gauza ditzen erraztea, Euskadiko eragileek nazioarteko 610 azoka, foro eta ekitalditan parte har dezaten laguntzea.
- Sare sozioekonomikoak bere proiektuak nazioartean gauza ditzen erraztea, finantzaketako eta laguntza ekonomikoko 330 programa aktibatzeke helburuarekin.

3.- Europako proiektuan laguntzea eta parte hartzea:

- Europar Batasuneko politiken konfigurazioan parte hartzea. Horretarako, kanal guztiak aktibatuko dira, Europako politiken eta programen diseinuan eragiten duten ekimenetan parte hartzeko. Eusko Jaurlaritzak parte hartuko du konstituzio-eskualdeek sustatutako espazio eta sareetan, EBren erakunde-arkitekturaren eragiteko.
- Euskal eragileek EBren funtsezko ekimenetan erabat txertatzea. Euskadin EBren finantzaketa-politikak eta -programak zabaltzeko ahaleginak areagotuko dira, batez ere hiru trantsizioekin lotuta daudenak. Euskadik Arku Atlantikoaren Batzordean, Itsas Eskualde Periferikoen Konferentzian eta Pirinioetako Lan Elkartean duen parte-hartzea ere indartuko da, 2023ra arte Euskadiren lehendakari izango baitu.

4.- Erronka globalak gainditzeko euskal ekarpena indartzea:

- Euskal politika publikoetatik Euskadirentzat garrantzitsuak diren agenda globalei laguntzea. Horretarako, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia behatoki bat izango da, egungo problematikei erantzunak biltzeko eta helarazteko, bai Nazio Batuen sisteman (PNUD, UNICEF, UNDESA, ONU-Habitat), bai beste erakunde batzuetan. Era berean, akordioak, proposamenak eta agenda interesgarriak helaraziko dizkie Jaurlaritzako sailei. Eta, azkenik, euskal politika publikoaren parte-hartzea sustatuko du, gune horietan erronka global horiek konpontzeko.

Estrategia 2025eko Kanpo Ekintzako Plan berriarekin partekatzen duten lau ardatz horiez gain, azken horrek **bosgarren ardatz** espezifiko bat du, **Euskal Komunitate Globala Eraikitze**ko Estrategiaren helburua garatzen duena.

Komunitatea-Han Hemen Global Network, atzerrian dauden euskal herritarren profilak elkarri lotzeko gai dena. Horretarako, kanpoan dauden euskal herritar berrien ezaugarriak, motibazioak eta beharrak aztertuko dira. Euskal Etxeen Sarea sendotzea ere bultzatuko da, eta Euskadiko diasporari buruzko ezagutza sustatuko da, ikerketa sustatuz eta hedatuz eta Euskal Diasporako Ikasketen Graduondokoa abian jarritz.

2025eko Kanpo Ekintzako Planari esleitutako aurrekontua 63.479.898 €-koa da indarraldiko bost urteetarako.

Lana eta Enplegua

HITZARMENA GIZARTERATZE MINISTERIOAREKIN, BGDSREN HARTZAILEEI LAGUNTZEKO ETA GIZARTERATZEKO PROIEKTUAK GARATZEKO

- **Europako funtsen kontura 6,59 milioi euroko zuzkidura du**

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak Lanbideren eta Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio Ministerioaren arteko hitzarmen bat sinatzea onartu du, BGDS jasotzen duten pertsonen laguntzeko, laneratzeko eta gizarteratzeko proiektu pilotuak garatzeko. Europako funtsetatik datozen 6,59 milioi euroko zuzkidura du, eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plan Nazionalaren barruan dago.

Lehendakariordeak 2022rako aurrekontuen aurkezpenean aurreratu zuen bezala, Lanbideak 6,59 milioi euro izango ditu gizarteratze-ibilbideak garatzeko proiektu pilotu berritzaileak egiteko, berdintasuna, gizarteratzea eta pobreziaren aurkako borroka sustatzen laguntzeko, BGDSa eskuratzeko tasa hobetuz eta eraginkortasuna handituz.

Diru-laguntzak Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarreraren onuradunekin ibilbideak garatzeko izango dira. BGDSaren onuradunen kopurua esku-hartzea garatzeko nahikoa ez denean, honako hauek ere jaso ahal izango dute lehentasuna: haurrak eta gazteak, adinekoak, desgaitasuna dutenak, migratzaileak, genero-indarkeriaren eta gizakien salerosketaren eta sexu-esplotazioaren biktimak diren emakumeak, diskriminazioaren biktimak, etxerik gabeko pertsonak, gutxiengo etnikoetatik etorritako pertsonak, transak, presoak eta preso ohiak, adikzio-arazoak dituzten pertsonak eta gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden beste batzuk.

Lana eta Enplegua

BIZKAIKO EMAKUME ENPRESARI ETA ZUZENDARIEN ELKARTEAK DIRU-LAGUNTZA JASO DU EMAKUMEEN AHALDUNTZEA ETA LIDERGOA SUSTATUKO DITUEN AZTERLAN BAT EGITEKO

Idoia Mendia Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkarteari zuzeneko diru-laguntza ematea onartu du, zuzendaritza-postuetan dagoen emakumearen egoerari buruzko azterlan bat egin dezan, emakumeen ahalduntzea eta erantzukizuneko postuetan lidergoa sustatzeko.

Eusko Jaurlaritzak berretsi egin nahi du lan-ingurunean emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrek duen konpromisoa eta soldata-desberdintasunaren arazoari erantzun integrala ematearen aldeko apustua. Jaurlaritzak modu koordinatuan lan egiten du Euskadin soldata-arrakala murrizteko ekintza-plan operatibo baten inguruan; izan ere, uste izan da soldata-berdintasunerantz aurrera egiteak, justizia-kontu bat izateaz gain, onura dakarkiola gizarte osoari, hazkunde ekonomikoari laguntzen dion heinean. Ildo horretan, Jaurlaritzaren konpromisoaren helburua da Euskadi soldata-desberdintasunik txikiena duten Europako eskualdeen artean egotea 2030erako.

Soldata-arrakala sortzen laguntzen duten faktoreetako bat kristalezko sabaia izeneko da, emakumeek enpresa-erakundeetan postu exekutiboak eta lidergo-postuak lortzea eragozten duena. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak garrantzitsutzat jotzen du emakumeak lanpostu horietatik aldentzen dituzten arrazoiak aztertzea, horren aldeko neurriak hartzeko.

Horregatik, Bizkaiko Emakume Enpresari eta Zuzendarien Elkarteari 17.908 euroko zuzeneko diru-laguntza ematea onartu da. Elkarte horrek lurralde horretako enpresa txiki, ertain eta handietan jarduten duten emakume enpresaburu, zuzendari eta profesionalen interesak ordezkatzeko, Impulsa proiektua abian jartzeko.

Ekimen honen helburua da lotura sendo eta eraginkorra egituratzea unibertsitateko emakume gazteen eta enpresa-proiektua hasten duten emakumeen eta elkarteko profesionalen artean. Proiektu horren bidez, sare handi bat sortu nahi da, eta sare horren xedea da emakumeen ahalduntzea bultzatzeko motor gisa jardutea, ekintzailetzarako eta erantzukizun-postuetan lidergoa lortzeko.

Uste da proiektuak indartu egin ditzakeela Eusko Jaurlaritzak gizarte kohesionatuagoa lortzeko egiten dituen ahaleginak, generoagatiko diskriminaziorik gabe.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

EUSKO JAURLARITZAK EZ DU AINTZAT HARTU ENERGIBERRI SOZIETATE PUBLIKOA SORTZEKO LEGE-PROPOSAMENA

- **Ez du beharrik ikusten Euskadin energia berriztagarrien sozietate publiko bat sortzeko, egungo egiturek eta foroek behar bezala funtzionatzen dutelako**
- **Jaurlearitzak nabarmendu du Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) duela ia berrogei urtetik jasotzen dituela sozietate berrirako proposatutako funtzioak eta eskumenak**

Gobernu Kontseiluak baztertu egin du Elkarrekin Podemos legebiltzar taldeak proposatutako EnergiBerri-Euskadiko Energia Berriztagarriak sozietate publikoa sortzeari buruzko lege-proposamena izapidetzea eta onartzea. Eusko Jaurlearitzak uste du jadanik badaudela proposamenarekin lortu nahi diren helburuak betetzen dituzten organoak eta foroak, eta behar bezala funtzionatzen dutela. Honenbestez, gaurko bileran adierazi du sozietate publiko hori sortzearen aurka dagoela, aukera, eraginkortasun eta proportzionaltasun arrazoiengatik.

Eusko Jaurlearitzak ez du sozietate publiko bat sortzeko beharrik ikusten. Izan ere, 1982tik energia agentzia bat du lanean, Energiaren Euskal Erakundea (EEE), eta honek funtsezko zeregina bete du euskal energia sistemaren bilakaeran, bai Euskadiko gasifikazioari dagokionez, bai herriarentzat estrategikoak diren proiektuetan parte hartzeari dagokionez.

Sozietate berrirako proposatutako funtzioak eta eskumenak EEEen jasota daude sortu zenetik. Ia berrogei urte hauetan energia berriztagarrien hedapenean, energia aurrezpena eta eraginkortasunean, subiranotasun energetikoan eta deskarbonizazio prozesuan aurrera egiten lagundu du. Gainera, erakunde honek teknologia berriztagarrien garapena bultzatu du: energia eolikoa, biomasa, tenperatura baxuko geotermia, itsas energiak eta, berriki, gas berdeak (biometanoa eta hidrogeno berdea) bultzatuz.

Eusko Jaurlearitzaren ustez, Energia Berriztagarrien Lurraldearen Arloko Plana - gaur egun prestatzen eta izapidetzen ari dena- energia berriztagarrien arloan planteatutako asmo handiko helburuak bultzatzeko eta proiektu berriztagarriak garatzeko kokalekurik egokienak definituko dituen tresna da.

Bestalde, Eusko Jaurlearitzak sozietate publiko berria errefusatu du, Lege Proposamenaren testuak planteatzen duenaren arabera, bere gain hartuko lukeelako banaketa eta merkaturatzea. Ildo horretan, azpimarratu du banaketa Estatuko esparru juridikoan araututa dagoela eta dagoeneko izendatuta dauden enpresek ematen dutela banaketa zerbitzua. Enpresa berri bat ezin da jarduera honetan sartu, aldez aurretik banaketa sarerik ez duten ingurune oso txikietan izan ezik. Merkaturatzeari dagokionez, Eusko Jaurlearitzak gogorarazi du EEEk inoiz eman ez duen jarduera dela, baina uste du mendeko enpresa batek ere ez

lukeela egin behar, dagoeneko badaudelako enpresa pribatuak merkatuan lehiatzen.

Gaur egun prestatzen ari den Euskadiko Trantsizio Energetikoari eta Klima Aldaketari buruzko Legea izango da berotegi efektuko gasen isurketan neutraltasuna lortzeko esparru juridikoa ezartzen duena. Gainera, lege onartzen denean, energiaren eta klima aldaketaren arloan erakundeen arteko koordinaziorako mekanismoak eta organoak sortuko ditu.

Gobernantza Publiko eta Autogobernua

GOBERNU KONTSEILUAK 'ARDATZ' ONARTU DU, GOBERNANTZA, BERRIKUNTZA PUBLIKO ETA GOBERNU DIGITALERAKO PLAN ESTRATEGIKOA 2030

- **Jaurlaritzak herritarrei kanal anitzeko arreta ematearen eta zerbitzu publikoaren kalitatearen aldeko apustua egiten du, eta gobernu digitalaren arloan aurrerapausoak proposatzen ditu**

Gobernu Kontseiluak 'Ardatz', 2030erako Gobernantza, Berrikuntza Publiko eta Gobernu Digitalerako Plan Estrategikoa, onartu du gaur, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren gobernantza, berrikuntza publikoa eta gobernu digitala egituratzeko zeharkako tresna izango dena.

Administrazio oso bat eraikitzea du xede plan honek, "berdintasunezkoa, berritzailea, enplegatu publikoen eta herritarren parte-hartze aktiboarekin, haien beharretan oinarritua, emaitzetara bideratu eta ebaluatzen dena, herritarren aurrean kontuak ematen dituen, irekia eta gardena, eta zerbitzu irisgarriak, kalitatezkoak, efizienteak, eraginkorrak eta seguruak eskaintzen dituen".

Planak garapen iraunkorraren hiru dimentsioak (soziala, ekonomikoa eta ingurumenekoa) hartzen ditu bere baitan. Nazioarteko eta Europako estrategiekin eta konpromisoekin integratuta eta lerrokatuta dago eta Eusko Jaurlaritzaren beraren beste plan batzuekin lotuta dago.

'Ardatz' Eusko Jaurlaritzaren zeharkako estrategia gisa sortu da, Euskadi gobernantza publikoan, horizontalean, hurbilean eta lankidetzan puntako eskualdeen artean kokatzeko, gizartearen eskaera aldakorrei erantzuteko gaitasunarekin.

PEGIP 2020 planaren ebaluazioa hartu da abiapuntu gisa, bai eta egungo egoeraren azterketa eta diagnostikoa ere. Behin hori eginda gobernu onarekin, berrikuntza publikoarekin eta gobernu digitalarekin zerikusia duten hainbat eremutako erronka zehatzak identifikatu dira. Hain zuzen ere, hori da Jaurlaritzaren konpromisoa, sail guztiek eta haien organismo eta erakundeek partekatzen dutena.

Azken batean, gobernu on bat izateko helburu horretan ezinbestekoa da gobernu osoa, berdintasunezkoa eta elebiduna, berritzailea eta etengabeko ikaskuntzan ari dena bermatuko duten jarduera esparruak sortzea. Horrek gizarte premiak eta kalitatezko zerbitzu publikoak aseko dituzten politika publikoetara hurbilduko gaitu.

Era berean, datuetan oinarritutako eta kontuak emango dituen gobernu bat egituratu nahi du, kudeaketa publiko aurreratuko sistemekin eta politikak eta

zerbitzu publikoak planifikatzeko eta ebaluatzeko mekanismoekin. Gobernu irekiaren ideian gehiago sakontzeko asmoa du eta baita komunikazio publikoa, gardentasuna eta herritarren ahalduntzea bultzatu ere, parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko aukerak eskainiz.

Planaren indarraldiak bat egiten du Europako eta nazioarteko plangintza mugarriekin, 2030 Agendarekin besteak beste, eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea aurreikusten da, bai eta berrikusi eta birformulatzea ere, Nazio Batuetako Erakundeak gobernu digitalari buruz egiten duen inkestarekin batera.

Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena

DIRULAGUNTZEN DEIALDIA IREKI DA, 7,5 MILIOI EURO BAINO GEHIAGOKOAK, LANDATARTASUN-MAILA HANDIKO EREMUAK SUSTATZEKO ETA HORIEN GARAPEN SOZIOEKONOMIKORAKO

- EREIN programaren barruan jasota daude, eta 116 euskal udalerrik jaso ahal dituzte
- Landa-ingurunean bizi-kalitatea hobetzeko nekazaritzakoak ez diren jarduerak gauzatzen dituzten ekimen publiko eta pribatuak finantzatzen dira
- 2017tik, laguntzen programa horien bidez 28 milioi inguru eman dira.

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko landa-inguruneak 2022an zehar sustatzeko eta garatzeko EREIN programaren laguntzak modu aurreratuan deitzea onetsi du. Bertan, guztira, 116 udalerrri sartuta daude. 7,56 milioi euroko aurrekontu bateratua dago, eta diru hori Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren bi aginduren bidez arautzen da.

Lehenago laguntza erakunde publikoei zuzenduta dago eta 4 milioi euro ditu ondare kulturalako eta naturaleko inbertsio-proiektuetarako, bai eta olgeta-, sustapen-eta informazio-azpiegiturak egiteko ere. Bigarrenak 3,56 milioi euro ditu, dibertsifikazio ekonomikoan eta enpresen sorreraren eta garapenaren bidez enplegua sortzean aurrera egiten duten ekimen pribatuak finantzatzera zuzenduak.

EREIN - SUSTAPEN PUBLIKOA

Laguntza hauen helburua honako hau da: landa-eremuko biztanleen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen duten azpiegiturak hornitzeko **ekimen publikoa babestea**, kultura- eta natura-ondarean inbertitzeko proiektuak sustatzea eta erabilera publikorako olgeta- eta informazio-azpiegituren proiektuak bultzatzea.

Laguntza hauen onuradun izan daitezke toki-erakundeak, hala nola udalerrriak, kontzejuak eta udalerrria baino lurralde-eremu txikiagoko beste edozein tokiko erakunde, udalerrietako mankomunitateak, Arabako lurralde historikoko kuadrillak, tokiko sektore publiko instituzionala edo Landa Garapeneko elkarteak, toki-erakundeek esku hartzeko eremuaren aldeko proiektu bat abian jartzea eskuordetzen edo agintzen dieten kasuetan.

EREIN – SUSTAPEN PRIBATUA

Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuetan enplegua mantentzen edo areagotzen laguntzen duten nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortzeko eta garatzeko **inbertsio pribatuak finantzatzeko**, honako hauek finantzatzeko dira:

- Nekazaritza-sektorearekin zerikusirik ez duten baino sektore hori dibertsifikatzen duten jarduerak.

- Mikroenpresak, enpresa txiki eta ertainak eta autonomo gisa alta emanda dauden pertsona fisikoek garatutako proiektuak eratzea eta garatzea, betiere inbertsioak nekazaritzako elikagaien ekoizpenera, eraldaketara eta merkaturatzera bideratzen ez badira.
- Enplegu-sorrera garbia. Mikroenpresak, enpresa txikiak eta ertainak izan daitezke laguntza hauen onuradun, betiere nekazaritzakoak ez badira eta landa-eremuetan badaude.

Bi kasuetan, **laguntza-eskabideak** landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio. Pertsona fisikoek aurrez aurre zein elektronikoki aurkeztu ahal izango dituzten eskabideak. Pertsona juridikoek kanal elektronikoaren bidez soilik. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Ekonomia eta Ogasuna

EUSKO JAURLARITZAK *FINKATUZ* FUNTSA HANDITU DU, 50 M€ GEHIAGOREKIN, ETA, HALA, AURTENGO URTERAKO 201 M€ IZANGO DITU FUNTSAK

Gaurko Gobernu Kontseiluak *Finkatuz* funtserako beste 50 M€ gehiagoko zuzkidura onartu du; funtsa Finantzen Euskal Institutuak kudeatzen du. Hala, finantza-tresna horrek 210 M€ izango ditu aurten, eta, kopuru horri, datorren urtera begira, 2022ko aurrekontu-proiektuan aurreikusitako 50 M€-ak gehitu beharko zaizkio. Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspena da bere kapitala areagotzen joatea legegintzaldian zehar, harik eta 300 M€-ra iritsi arte.

Pedro Azpiazu Ekonomia eta Ogasuneko Sailburuak pasa den urrian esan zuenez, Finantzen Euskal Institutuak maniobrak egiteko duen marjina sendotzeko asmoa du Eusko Jaurlaritzak, Institutua EAEko finantza-politika antolatzeko agente arduraduna baita, eta, gaur egun, garrantzi berezia baitu sustapen eta garapen ekonomikoko politikak aktibatzeke, kontuan hartuta horiek direla EAE eraldatzeko ibilbidea markatzen dutenak.

Zuzkidura hori eraginkorra izateko –inbertsio gisa gauzatuko da Finkatze Kapitala Finkatuz SAn–, gaurko akordioak kreditu globala areagotzea aurreikusten du, diruzaintzako gerakinen kargura, 50.000.000 euroan eta haren eskura, Ekonomia eta Ogasun Sailak funts horiek Finantzen Euskal Institutuari eskualdatzeko, sozietate publiko horretan bazkide-ekarpena egiteko.

Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK GAZTEEN MUGIKORTASUN ETA ELKARTRUKERAKO JARDUERETARAKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU 2022'RAKO

Gobernu Kontseiluak ontzat eman du Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren agindua, **gazteen mugikortasuneko eta trukeko jardueretarako 2022rako diru-laguntzak** arautzen eta deitzen dituena. Guztira 145.000 euro bideratuko dira ekimen honetara.

Beatriz Artolazabal Sailburuak zehazten duenez, “diru-laguntzak jaso ahal izango dituzte gazteen mugikortasunerako edo trukeko jarduerak, bai eta gazteen mugikortasunarekin edo trukearekin zerikusia duten sustapeneko, hedapeneko edo prestakuntzako lurraldez gaindiko jarduerak ere”.

Gazteen mugikortasunerako edo trukeko ekintzak Euskal Autonomia Erkidegoko eta Europar Batasuneko beste eskualde eta estatu batzuetako **12 eta 30 urte bitarteko gazte-taldean arteko jarduerak** dira.

Jarduerak parte-hartzaile guztien garapen pertsonal, **sozioedukatibo eta profesionalerako gaitasunak** –ezagutzak, trebetasunak eta jarduerak– eskuratzea edo hobetzea dakarte, ikaskuntza *ez-formalaren* eta *informalaren* bidez.

Gaur onartutako aginduan honako hauek eskatzen dira: proiektuan parte hartzen duten gazteen inplikazio aktiboa, parte-hartzaileen garapen sozial eta kulturala sustatzea, kulturarteko, europarra eta nazioarteko dimentsioa eta truke-jarduera bakoitzerako (bidalketa edo harrera-jarduerak) segidako 6-21 eguneko iraupena izatea. Horretarako, **prestakuntza-fasea** alde batera utzita, trukea egingo den tokirako bidaia-egunak eta jarduerak ebaluatzeko fasea zenbatuko dira.

Talde bakoitzeko parte-hartzaileen kopurua 6 gaztekoa izango da gutxienez eta 15 gaztekoa gehienez. Nolanahi ere, gehienez 60 gaztek parte hartuko dute. Gainera, talde bakoitzak begirale bat izango du gutxienez, eta gehienez ere **monitore bat parte hartzen duten lau gazte bakoitzeko**, salbu eta monitore gehiago egotea justifikatzen bada parte-hartzailearen baten edo batzuen premia bereziengatik.

Ekimenaren kostu ekonomikoa 145.000 eurokoa da. 2021eko ekitaldian, Gazteria Zuzendaritzak 19 diru-laguntza-eskaera erregistratu zituen. Jardueretan parte hartu zutenei dagokienez, **469 gaztek zuzenean parte hartu zuten** diruz lagundutako mugikortasun- eta truke-jardueretan.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 2,1 MILIOI EUROKO DIRU-LAGUNTZA EMANGO DIO ZALLAKO UDALARI, LA GUATA ZELULOSA-FABRIKA ZAHARREAN ARTISTENTZAKO GUNE BAT FINANTZATZEKO

Gobernu Kontseiluak Zallako Udalari urte anitzeko zuzeneko dirulaguntza bat ematea onartu du gaur, Zallako La Guata zelulosa-fabrika zaharrean kultura- eta sormen-industrien gune bat, “Zallako Artisten gunea”, sortzea finantzatzeko. Guztira, 2.158.000 euro izango dira 2021-2023 aldirako, eta honela banatuko da:

- 2021. urtea: 665.571 euro
- 2022. urtea: 1.192.429 euro
- 2023. urtea: 300.000 euro
-

Horrela, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eraikinaren erosketara, plan estrategikoa eta proiektu teknikoa idaztea eta eraikina aurreikusitako beharretara egokitzeko lanak finantzatuko ditu.

ZAP

“Zallako artisten gunea” proiektua Lehentasunezko Jarduteko Guneen (ZAP) barruan sartzen da, Berpiztu programaren barruan dagoen plan berezi bat, egoera ahulean dauden eskualdeak, kasu honetan Enkarterri, Bizkaian, bultzatzeko.

La Guata eraikina birgaitzearen helburua talentu artistikoa sustatzea da, eta, hedaturaz, sormena. Horretarako, kultura- eta sormen-garapenarekin lotutako erabilera berrietara bideratuko da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

GOBERNU KONTSEILUAK NAZIOARTEKO HAINBAT KIROL JARDUERA ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZAK ONARTU DITU GAUR

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailaren proposamenez, gaurko Gobernu Kontseiluak hainbat Kirol jarduera antolatzeko dirulaguntzak onartu ditu.

Alde batetik, 40.000 euroko diru-laguntza onartu da Euskal Mendizale Federazioarentzat, Euskadiko mendi lasterketen selekzioak Munduko Zirkuituan/Skyrunnig World Series zirkuituan parte hartzeko gastuak finantzatzeko. Guztira, Euskadiko selekzioak 8 herrialdetako 8 nazioarteko lasterketetan parte hartu du aurtengo ekaina eta urria bitartean.

Bestalde, Gobernu Kontseiluak 10.000 euroko diru-laguntza eman dio Euskadiko Gimnasia Federazioari, azaroaren 20an eta 21ean Barakaldoko BECen ospatu zen XV. Euskalgym, Nazioarteko Gimnasia Gala antolatzeko.

Amaitzeko, hirugarren dirulaguntza bat onartu da Euskadiko Padel Federazioarentzat, 40.000 eurokoa, urriaren 4tik 9ra Bizkaiko hainbat egoitzatan egin zen 2021eko Europako Txapelketaren antolaketa finantzatzeko.

Presidencia

EL GOBIERNO VASCO APRUEBA SU NUEVA ESTRATEGIA *EUSKADI BASQUE COUNTRY 2025* PARA HACER FRENTE A LOS FUTUROS RETOS

- **El Consejo de Gobierno ha dado luz verde también al Plan de Acción Exterior para la presente legislatura**

El Gobierno Vasco ha aprobado en su reunión de hoy su nueva Estrategia marco de Internacionalización *Euskadi Basque Country 2025*, con la que aspira a reforzar su actividad de internacionalización, en un escenario marcado por la recuperación y transformación del modelo socioeconómico generado por la irrupción de la Covid-19. Asimismo, y en el marco de esta estrategia, el Consejo de Gobierno ha dado luz verde al Plan de Acción Exterior para la presente legislatura.

Euskadi Basque Country es una estrategia transversal y en su proceso de elaboración han participado los distintos departamentos del Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales; EUDELY los ayuntamientos de las tres capitales vascas; así como numerosas instituciones públicas y privadas con actividad relevante en el plano internacional que integran los órganos de gobernanza de la acción exterior. Todo ello, con el objetivo de crear una hoja de ruta de internacionalización común, adaptada a los cambios geopolíticos a nivel internacional, que facilite las transiciones digital y climática, y aproveche tendencias como el incremento de la relevancia de los gobiernos subestatales.

La nueva estrategia -a la que se va a destinar un total de 609.628.068 euros- establece como meta de actividad el desarrollar un total de 3.210 actividades de internacionalización.

Asimismo, se identifica un conjunto de países y regiones prioritarias en los que se va a centrar una parte muy sustancial de la agenda exterior del Gobierno Vasco en los próximos cuatro años. Así, se reforzarán las relaciones con algunos países y regiones con los que se viene manteniendo una estrecha relación, se propiciará la diversificación hacia nuevos ámbitos de actividad y se desarrollarán contactos y alianzas en geografías prioritarias.

Con el horizonte 2025, los países prioritarios son: Francia, Alemania, Reino Unido, Italia, Suecia, Dinamarca, Finlandia, EEUU, México, Chile, Colombia, Argentina, Canadá, China, Corea del Sur, India, Japón, Sudáfrica, Senegal. A nivel regional, las regiones prioritarias son: Nueva Aquitania, la Mancomunidad de Aglomeración del País Vasco, Flandes, Baviera, Gales, Córcega, Quebec, Querétaro, Cundinamarca y Jianguo.

Ejes y objetivos

Tanto la Estrategia Euskadi Basque Country como el Plan de Acción Exterior comparten cuatro grandes ejes que van a guiar la actividad internacional del Ejecutivo vasco y sobre los que se despliegan el conjunto de sus objetivos y actuaciones.

Estos ejes son:

1.- Mejorar el posicionamiento exterior de Euskadi Basque Country:

- Reforzar la marca país: diferenciada, atractiva e inclusiva
- Reforzar y desplegar la red exterior del Gobierno Vasco con la apertura de 4 delegaciones en países prioritarios europeos, empezando con la Delegación en París, así como el despliegue de agencias de Basque Trade & Investment (en breve, en Japón y en Corea del Sur).
